

FEDERICO KRUTWIG SAGREDO.—*Otsoaren bidea*. Haranburu-Editor, S. A. Donostia, 1982.

Belatzen baratza saileko 3. liburua. Bertan, «Eneko Otsoak, Harpeko Agurearen Erhaztuna hartu zuenetik bere mystagintzaren bide luzea lehen-bait-lehen hasi behar zuela konventzuta zegoen». Eta aintzinako aldiari heltzen dio. Lau erhaztunetatik lehena da eta honen bidez abiatuko, eten gabeko etorrrian eleberri kondairagarri bati loturik liburu berriak sortzeko beste hiru burutu arte. Horregatik, *Otsoaren bidea* deritzon hau geroko *Ortziren zaldiak*, *Garaziko oihanaren thauma* eta *Sua ez da hiltzen* hirukoitzaren giltzia da.

Lehen erhaltundenetik beste hiruretara jo genezakegu jarraipenez. Liburu bakoitza hasi eta bukatuzkoa da, baina nahi duenak segida aurkituko du besteetan.

Lehen hontan, ondokoen ulergarri, hemen dakartza bitan dituen sumeriar hitzegiak: Apollinikoak eta Dionysikoak.

Ondoko beste hiru liburuetan bezala, hemen ere, egia eta magia nahasturik dabilta.

VI. mendeko Kaledonia (Eskozia nonbait) aldetik emango dio hasiera, bertako masoneriaren egoera azalduz, belatzen baratza adierazteko. Baina, zer da belatzen baratza? Egileak hitzez agertuko digunez, kabernikola taldea dirudi. Hara hemen hitzez-hitz:

*Belatzak hierakoak dira
Hierakoak beren hieroetarat dioaz,
Hierakoak belatzak dira!
Ait litez izan belatzak harpêak!
Harpetik iltkhitako harpêak;
Ekhiak phiztu dituen suzko helenak ait lira.
Eta Helenen aluan zuen elheak aloak dirateke;
Aporrhêto argitzenago da,
Harpeetikako harpêen bidez,
Ait lira hitz harpaktikoak,
Arakhnêak bilbatu hyphasma
Berriro bere harpe beltzean biltzen delarik
Belesikhararen belemnoak
Mu-Alu bizi emailerat itzuliaz:
Argia ta Zelane!
Bizi ta Ortziri
Agnapto alurgiak bai liren
Harpêak harperat itzuliaz
Harpeko Agurearen aporrhêtoa,
Harpêetikako rhythmoean
Oh Elo jauná! Oh Niniske andrá!
Oh Harpê! oh Belatz! oh Hierako!
Jaun hok ait lira argitu harroia.*

Hara hor jatorriak eta hitz harpaktikoez eritzia. Liburu hau, gutienez ere, entretenigarri ez bada, zuk esan, irakurle.